DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko Uztailaren 20an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, gehiengoz, Bozeramaileen Batzordeak:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 20 de julio de 2021, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*"Mikel Iturgaiz Euskal Herriko Alderdi Popularreko lehendakari Carlos Iturgaizen semeak, larunbatean, Urbietako (Gernika) futbol-zelaian partida bat jokatzen ari zela, pertsona/ikusle talde baten jazarpena eta eraso egiteko ahalegina jasan behar izan zituen. Gertaera hori intolerantzia eta gorroto erakustaldi bat da, gure gizartean onartu ezin duguna, eta onartu behar ez duguna.*

*"El acoso e intento de agresión por parte de un grupo de personas/espectadores a Mikel Iturgaiz, hijo del Presidente del Partido Popular del País Vasco, Carlos Iturgaiz, durante el partido que disputaba el sábado en el campo de fútbol de Urbieta (Gernika), es un lamentable episodio de intolerancia y odio que no se puede ni debe tolerar en nuestra sociedad.*

*Mikel Iturgaiz gaztearen aurkako mehatxu eta irainek, politikari baten semea izateagatik, agerian uzten dute Euskal Herrian oraindik badaudela desberdin pentsatzen dutenen kontrako gorroto-hondarrak.*

*Las amenazas y los insultos contra un joven, Mikel Iturgaiz, por ser hijo de un político son la demostración de que en el País Vasco existen aún rescoldos de odio contra quienes piensan diferente.*

*Onartezina den eta gaitzespenik gogorrena merezi duen gertaera honen aurrean, udal taldeok honako erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu:*

*Ante esta situación inaceptable y digna de la más severa de las condenas, los grupos municipales presentamos la siguiente:*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*1. Gure gaitzespen eta arbuiorik irmoenak adierazten ditugu joan den larunbatean Mikel Iturgaizek, bere ideologia politikagatik eta Euskal Herriko Alderdi Popularreko lehendakariaren semea izateagatik, jasan zituen mehatxuak eta erasotzeko ahalegina direla-eta. Gertaera horiek ez dute gure gizartearen nolakotasuna inola ere islatzen, haren nortasun-ezaugarriak bizikidetza, tolerantzia eta aniztasunarekiko errespetua dira-eta.*

*1. Mostramos nuestra más rotunda condena y repulsa ante las amenazas e intento de agresión sufridas el pasado sábado por Mikel Iturgaiz, por su ideología política y por ser hijo del Presidente del Partido Popular del País Vasco. Son unos hechos que nada representan a nuestra sociedad, cuyas señas de identidad son la convivencia, la tolerancia y el respeto a la pluralidad.*

*2. Elkarrizketarekin, desberdina denarekiko errespetuarekin, bizikidetzarekin, bakearekin eta askata-*

*2. Reafirmamos nuestro compromiso con el diálogo, el respeto al diferente, la convivencia, la paz y la lib-*

10740n XVII

*sunarekin dugun konpromisoa berresten dugu, balio gorenak baitira.*

*3. Donostiako Udalak gertutasuna eta laguntza helarazi nahi dizkie Mikel Iturgaizen familiari eta jazarpen ideologikoa jasaten duten guztiei".*
===============================

*ertad, como valores supremos.*

*3. El Ayuntamiento de San Sebastián quiere trasladar su cercanía y apoyo a la familia de Mikel Iturgaiz, y a todas las personas que sufren acoso ideológico".*
================================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko uztailaren 28an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 28 de julio de 2021.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**